

Atxikirik duzue Hezkuntzako kontseilariaren foru aginduaren proposamena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio eskola-jantokia arautzeko foru agindua prestatzeko prozedurari.

Uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskolako jantokiak arautu ziren, derrigorrezko irakaskuntzaren mailetan.

Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Aginduaren bidez, berriz, garatu zen uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuan xedatutakoa (Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskolako jantokiak arautu zituen foru dekretu horrek).

“Nafarroako gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioa 2023-2027” agiriaren 5. atalean (“Ezagutza, hezkuntza eta aukera berdintasuna”), eskola-jantokiei buruzko zenbait puntu daude jasota:

- Zerbitzu osagarrien estaldura mailaz maila handitzea, familien bizitza ikastetxeetan bertan errazteko
- Jantokien araudia aldatzea, eskola-jantokia hezkuntza-prozesuaren beste atal baten gisara txertatzeko, eta, hortaz, familia-kontziliazioa ordutegietan ere errazteko (jantokia edozein lanaldi motatan: jarraitua eta/edo zatitua).
- Jantokia ikasturteak dituen 175 eskola-egunetan kudeatzea, dirulaguntza emanez garraioa behar duten edo behar ekonomikoan dauden guztiei, eguneko gehieneko prezio bat ezarriz jankide bakoitzeko, eta Hezkuntza Departamentuak bere gain hartuz gainerakoa.
- Aitzina joatea despopulatzeko arrisku izugarria duten herrietako ikasleei jantokizerbitzua finantzatzen, Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin azterlanean ezarritakoaren arabera.
- Landa-eskolak dituen premia berariazkoei erantzutea, landa-eskolari laguntzeko berariazko Lurralde-lankidetzako Planaren bitartez. Plan horretan, antolamendu-sistemei eta bitartekoei buruzko konpentsazio-neurriak jasoko dira: eskolen digitalizazioa, baliabide teknologikoak, zerbitzu osagarrietara iristea, landa-eskolako irakasleen berariazko prestakuntza, gertu dauden landa-eskolen arteko sare-lana, eta abar.

Nafarroako gizartean gero eta ozenago eskatzen zaie administrazio publikoei hezkuntzarako sarbidea erraz dezaten. Horretarako, bada, neurri batzuk ezarri beharko dituzte, lagunduko dutenak lana eta familia bateragarri egiten, eta bide emanen dutenak gizonak eta emakumeak baldintza berberetan sartzea lan-munduan. Ildo horretan, agerikoa da eskola-jantokiak ematen duen zerbitzuak lagundu egiten diela familiei lan bizitza eta seme-alaben zaintza egokia uztartzen.

Gizartean eta hezkuntza-sisteman izan diren aldaketak direla eta, komeni da eskola-jantokiaren zerbitzua arautzea, halako moduz non, batetik, bermatuko baita hezkuntzaren osagarri den zerbitzu hau ematea bai bizi diren herritik kanpo mugitu behar duten ikasleei bai egoera sozioekonomiko zaugarrian bizi diren familia-unitateetako ikasleei, eta, bestetik, aukera emanen baitzaion ikastetxeei zerbitzu hau eskaintzeko hala nahi duten gainerako ikasleei.

Eskola-jantokiaren zerbitzua hezkuntzaren arloan txertatuta dago, eta alderdi hori nahitaez hartu behar da kontuan, hain zuzen, zerbitzua aprobetxatu eta indartzeko.

Ikasleak jantoki-zerbitzua erabiliz ikastetxean ematen duen denborak onurak ekarri behar dizkie ikasleei zein familiei. Ikasleek eskubidea dute kalitatezko elikadura izateko, eta, orobat, denbora-tarte hori aprobetxatu eta prestakuntza integrala jasotzeko. Hezkuntza-jardueren bitartez, zenbait gaiei buruzko prestakuntza jasoko dute, hala nola elikadura- eta gizarte-ohiturak eta bizitza osasuntsuari lotutakoak; hori guztia, errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako giroa lagun.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da berriz arautzea jantokien arloa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa ematen duten Nafarroako ikastetxe publikoei eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoei dagokienez, errealitate horretara egokitzeko.

Iruñean, 2023ko urriaren 5ean

LANBIDE HEZIKETAKO, DIGITALIZAZIOKO ETA HEZKUNTZA ZERBITZUETAKO
ZUZENDARI NAGUSIA